



Euskal finantza-lankidetzak baterantz

Mintegiaren errelatoretza

2023ko otsailaren 22an, asteazkena, Euskadin finantza-lankidetzako modalitatea definitzeko prozesua abiarazteko mintegia egin zen Bizkaia Aretoan (Bilbo). Berrogeita hamar bat lagunek hartu zuen parte¹, guztiak ere gizarte-ekonomiaren eta ekonomia sozialaren, inpaktu-finantzen, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeetako, akademiaren munduko eta herri administrazioako ordezkariak. Askotariko ikuspuntuak eta iritziak biltzen dituen ekosistema, elkarren osagarriak eta, alderdi batzuei dagokienez, kontraesankorrak diren ikuspuntu eta iritzietan oinarrituta; horiekin, prozesurako garrantzitsuak diren gai ugari heldzea lortu zuen eztabaida egin ahal izan zen. Errelatoretza horren asmoa da ekarpen eta hausnarketa horien funtsezko ideiak laburbiltzea, hurrengo urratsak definitzerakoan baliagarriak izan daitezen.

Deialdia egin zenean aurreikusitako egiturari jarraituz egin zen mintegia. Lehenik eta behin, ongietorria egin zitzaion mintegira bertaratu zirenei, eta irekiera ekitaldia egin zen, herri-erakundeen eskutik. Jarraian, jardunaldiak, definizio kolektiboa egiteko eta inplikaturako eragileen komunitate bat sortzeko prozesuaren barruan, dituen helburuak azaldu zituzten. Lehenengo blokeari ekin zitzaion ondoren; inpaktu-inbertsioaren esparru globala kokatu zen hor, eta hark nazioarteko lankidetzarekin duen lotura, Mariona Gonzalezen (SpainNab) hitzaldiari esker. Miquel Carrillok (Nadir Perspectiva SCCL) Euskadin finantza-lankidetzaren arloan dagoen esperientziara eta erabilgarri dauden gaitasunetarako hurbilketa bat egin zuen. Bigarren blokean, “Bizitzak aldatzen dituzten enpresak” programan izandako esperientziaz eta tresna handinahiago bateranzko bilakaeraz hitz egin zuen Josep Ferrerrek (Oxfam). Beste hainbat hitzaldi egin zen ondoren, ANESVAD Fundazioarena eta Microfidesena kasu, eta erakundeon esperientziak kontatu zituzten. Hirugarren blokean, berriz, inpaktu-inbertsioak 2030 Agenda hedatzeari dagokionez duen ahalmena deskribatu zuen Agustín Vitóricak (GAWA Capital), bai eta Huruma Funtsearen esperientzia eta Estatuz azpiko lankidetzatik tresna berrien egokitasuna ere. Fiarek, Oikocreditek eta Alterfinek ikuspegi hori osatu zuten; haien mintzaldietan, finantza etikoek lortutako ahalmena eta esperientzia baliabideen mobilizazioan eta sektore pribatua maila globalean aktibatzean kokatu zituzten. Azkenik, osoko eztabaida egin zen, eta horrekin amaitu zen mintegia.

Zergatik eta zertarako

Hainbat faktore elkartzen da, saioan parte hartu zutenen ikuspuntuen arabera, finantza-lankidetzak maila globalean une honetan bizi duen egoera azaltzen dutenak. Alde batetik, egiaztatuta dago agortuta dagoela hazkunde ekonomikoko mendebaldeko eredua, etengabeko eta mugarik gabeko metaketan oinarrituta dagoena. Munduko sistema

¹ Ikus parte-hartzaileen zerrenda eranskinean, agiriaren amaieran.

ekonomikoa eta finantzarioa arrisku ugariaren eraginpean egongo da epe laburrean, eta beste helburu batzuetarantz begira jarri beharko du, bestelako logika batean eta gobernantza batean oinarrituta. Besteak beste, modu aktiboan lagundu beharko du deskarbonizazioan eta energia-trantsizioan; ezin du jarraitu gatazkez elikatzen, eta ekoizpen sozialera eta eskubideak eta herritartasuna sortzera bideratu behar du. Ildo horretan, negozio-ereduaren eta enpresa-kulturaren aldaketa gertatzen ari da, ekonomia sozialak eta solidarioak, finantza etikoen eta kooperatiba-mugimenduaren bitartez, orain dela urte askotatik defendatzen duten ikuspegira hurbiltzen dena.

Halaber, mundu osoko finantza-aktiboen titularren artean ikuspegia aldatzen ari da, hainbat arrazoiengatik; horixe da funts handien, familia-ondasunen eta dirudun klaseen aurrezpenaren kasua. Funts handiak ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideetan oinarrituta egiten diren inbertsioetara aldatzen ari dira, gardentasunagatik; familia-ondasunek aberastasun hutsa ez den bestelako ikuspuntu bat eskatzen dute, eta dirudun klaseak gero eta sentiberagoak dira eta gero eta gehiago jabetzen dira ikuspegi horrek duen garrantziaz.

Bestalde, 2030 Agendak eta Garapen Jasangarriko Helburuek trantsizio globalerako esparru bat definitu dute, holistikoa, unibertsala eta era guztietako eragileek hein handi batean defendatzen dutena. Estrategia globala da, kritika ugari ere jaso dituen eta, batez ere, aktibatu ezin daitekeena, finantza-baliabide pribatuak mobilizatzen ez badira eta haietako zati handi bat lerrokatzen ez bada. Garapenerako Laguntza Ofiziala ez da nahikoa Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko, are gutxiago gaur egungo mailetan; adostasun hori Addis Abebako 2015eko biltzarrean ezarri zen. Halaber, jakinekoa da ekonomia globala deskarbonizatzea bezalako trantsizio konplexuak bidezko moduan egin daitezen, beharrezkoa izango dela gorabidean dauden herrialdeetako enpresa txiki eta ertain askori laguntzea balio-katearen amaieran, azkenean haiek hartu beharko baitituzte beraien gain beharrezko aldaketa produktiboekin lotutako kostuak eta, kasu askotan, baztertuta geratuko dira behar adinako finantzazioa lortu ezin dutelako.

Enpresa horiek dira, gainera, familia eta komunitate mailan enplegua eta aberastasuna sortzeko gaitasun handiena dutenak. Hala ere, tokiko mailan finantza-zerbitzuak eskuratzeko ahalmen murrizta dute: mikrokredituek edo kreditu handiek finantza-industria global bat sortu dute eta, *missing middle* deritzonak, berriz, ez du lortzen funtsik, bermerik, lan-kapitalik eta bestelakorik eskuratzeko eta ekimenak aktibatzea. Finantza-zerbitzuekin lotutako administrazio-kostuen, azterketen eta laguntza teknikoaren eraginez, haien benetako beharretatik urrun egon ohi diren mailetan kokatzen dituzte *ticketak* edo kreditu-bolumenak. Beren inbertitzaileentzako irabaziak sortzea helburu nagusitzat ez duten eta tradizionaliki sektore horretan jardun duten erakundeek ere enpresa txiki eta ertain globalentzako eskuratzeko gero eta nekezagoak diren eragiketekin lan egitera behartuta ikusi dute beren burua, horrela haien kapitala zaintzeko.

Garapenerako Laguntza Ofizialak lan-nitxo bat aurkitu du merkatuaren akats horretan, duen kapilaritateagatik eta ekoizpen sozialera bideratutako garapenaren ideia endogeno batekin artikulatzeagatik inpaktu handia izan dezakeen sektore batek finantza-zerbitzuak eskuratzeko helburuz. Baina baita inbertsioak bultzatuz eta 2030 Agendaren zerbitzura

egiten diren inbertsioen bolumena handituz ere, abalek, lehenengo galeretarako funtsek, laguntza teknikoek, kanbio-aseguruek eta bestelako tresnek izan dezaketen inpaktu positiboari esker.

Hainbaten ahotan identifikatu zen bezala, berebiziko garrantzia du arlo publikotik finantza-lankidetzako modalitate bat garatzea justifikatzen duten jomuga eta arrazoiak ez galtzeak. Europan gaur egun dagoen likidezia oparoak eta gorabidean dauden ekonomietan finantza-aktiboak jartzeko beharrak edo aukerak behar faltuak sor ditzakete Hegoalde globalean, eta garapenaren munduan ondoto ezagunak diren arazoak areagotu, zorraren arazoa, esaterako. Modalitate hori egituratu eta helburuekin lerrokatuta eta haien osagarri dela ziurtatuko duen lankidetzak-politikarik gabe, ez luke zentzurik izango hura garatzeak. Modalitate berri bat ezartzeko –hark gara ditzakeen tresna guztiekin–, funtsezkoa da politika publiko horren oinarrian dauden eraldaketa-helmugei eta eraldaketa-ikuspegiari lehentasuna ematea.

Illo horretan, funtsezkoa da finantza-bolumen itzelak ekar ditzakeen aukera politikoki kudeatzea; bolumen horiek eurogunekoak baino errentagarritasun handiagoek erakarrira iristen dira, eta presio oso garrantzitsua sor dezakete eta, aldizka, lortu nahi diren inpaktuak eta ikuspegia hutsaldu. Abiapuntuko premisa horrekin lotutako bi eztabaida daude, saioan sortu zirenak: inpaktua jakinaraztea eta inbertsioarekin lotutako etekinak sortzea. Lehenik eta behin, beharrezkoa da lortu nahi diren eta finantzazioa eskuratzeko aukera ematen duten inpaktuak neurtzeko eta haien berri emateko irizpideak eta mekanismoak sortzea. Gaur egun, tresnak sortu diren arren, ahuldadeak daude, eta eskasa da neurtzeko kulturaren hedapena. Gainera, nolabaiteko nahasmendua dago “inpaktua” kontzeptuaren inguruan; ez du esanahi bera izan beharrik finantzaren arloan eta garapen jasangarriarenean. Bideratutako inbertsioekin partekatutako espazio lausoegia da; inbertsio horiek ESG irizpideekin soilik bideratzen dira, baina ez dute helburu eraldatzaile jakinik.

Bestalde, kapitalak modu masiboan erakartzeko beharrezko baldintza gisa etekina ezartzeko, beharrezkoa da eztabaida zabala egitea eta adostasunetara iristea. Merkatuari, oro har, oraindik ez zaio interesatzen Garapen Jasangarriko Helburuak emaitza edo berme lehiakorrik gabe lortzeko inbertitzea. Addis Abebako adostasunean definitutako fluxuen dimentsioei erantzuteko, hein batean Garapenerako Laguntza Ofizialak eman ditzakeen pizgarriak behar dira, inbertsio horiek lankidetzak-politikari balioko badiote. Baina badago finantza etikoetan kapital-funts bat, mobilizatzeko horrenbeste exijitzen ez duena, eta politika horrekin modu naturalagoan lerroka daitekeena. Finantza horiek bolumen oso murrizta dute gaur egun, ez dira oso ezagunak eta, orain arte, aurrezki pribatua mobilizatzeko gaitasun eskasa erakutsi dute; hala ere, jendea, oro har, ekonomia bidezkoago bateranzko trantsizioan inplikatzeko aukera ugari eskaintzen dute. Eraldaketa handinahi baterako beharrezko funtsak erakartzeko behar besteko legitimitatea modu zabalean sortzea da prozesu guzti honen gakoetako bat.

Nola eta norekin

Mintegian argi geratu zen finantza-lankidetzak ezartzeko mekanismoak erabakigarriak izan daitezkeela, haren jomuga eta koherentzia bera ez galtzeko. Proiektu-zorria edo *pipeline* delakoa sortzea funtsezko kontua da, hainbat arrazoiengatik. Lehenik eta behin, lankidetzako politika publikoarekin edo politika hori ezartzen duten lankidetzako eragileen estrategiarekin berarekin lerrotatuta egoteagatik. *Pipeline* delakoa eraikitzerakoan eta ekimen bat edo bestea aukeratzeko moduari dagokionez sortzen den tentsioari buruzko zenbait esperientzia entzun zen saioan. Elementu eraldatzailea bateraezina izan daiteke errentagarritasun-irizpideekin, inbertsioak merkaturatzen diren merkatuen exijentzien neurri proportzionalen.

Bestalde, zorria da azkenean finantza-lankidetzako ekimen bati balio erantsia ematen diona, inpaktu jakin bat eragitea lortu nahi den sektoreetarantz bidera baitaiteke, osagarritasuna indartuz. Ildo horretan, badago aukera on bat: Garapenerako Gobernu Kanpoko euskal erakundeak eta Hegoalde globalekoak finantza-lankidetzako tresna publikoko proiektuen zorria definitzeko lankidetzan jardutea, baina baita inbertsioak ezarriko dituzten eragileengan gaitasuna sortzeko laguntzen jardutea ere. Prozesu horrek ondo zuzenduta egon behar du aldaketaren teoriaren inguruan eta, jakina, baita genero-ikuspegi baten inguruan ere, eta giza eskubideetan oinarritua. Finantza-lankidetzako modalitatea ezartzeko tresnek gaitasunak eskaintzeko eta hobetzeko behar adina baliabide aurreikusi behar dituzte; horixe adierazi zen saioan, zenbait adibide jarrita.

Lankidetzak publikotik garatutako inpaktu-inbertsioko funts batzuetan aurreikusitako laguntza teknikoak erakundeek eskuarki eskuratzen dituzten lehiaketa bidezko diru-laguntzen antzerako mailakoak dira. Laguntza tekniko horietan parte hartzeak baliabide-iturri oso garrantzitsua ireki dezake, eta emaitzen arabera kudeaketan sakontzen ere lagun dezake Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen barruan eta, horrela, diru-laguntzen erregimenak ekarri dituen dinamika kaltegarriak alde batera utzi.

Eta, modu berezian, aldaketa neurtzeko baliabideak berrikusi, sortutako inpaktuei buruz hausnartu eta horietatik ikasi ere egin behar da; prozesu horretan, aipatutako eragileez gain, unibertsitateak ere eginkizun nabarmena izan dezake. Gure herrialdean bistakoak dira ekonomia sozial eta solidarioaren (ESS) eskemarekin dituen konexioak eta antzekotasunak, eta bide ematen du eragile eta esperientzia gehiago sar daitezen. Aurrez aipatu den eta mintegian adierazi zen bezala, lankidetzaren helburu eraldatzaileekin lerrotatzeak eta itzulkin komertzialik ez exijitzeak biderkatu egiten dituzte ESSaren gaitasunak.

Funtsen kudeaketan espezializatutako erakundeak dira funtsezko beste eragile bat. Hainbat esperientzian oinarrituta, ezarri nahi den lankidetzaren helburuak ulertuko dituzten enpresa kudeatzaileekin aliantzak sortzeko beharra adierazi zen, hizkuntza bera erabiliz. Finantzaren sektoreko irakinaldia arrisku-faktorea izan daiteke, eta inbertsio mota ezberdinen izaera argitu beharra dago, izen-abizenak jarri, eta herritarrei atzean zer dagoen eta helburuak zein diren azaldu beharra. Beharrezkoa da esperientziadun kudeatzaileekin lan egitea, eta ez asmatzea dagoeneko existitzen diren eta funtzionatzen duten tresnak,

nahiz eta beharrezkoa den inpaktu-inbertsioko ekosistema finantzarioa hedatzea, sor litezkeen aukerei erantzuteko.

Gomendioak

Azkenik, eta bildutako esperientziak eta hausnarketak kontuan hartuz, saioaren bloke ezberdinetan sortu diren gomendio garrantzitsu batzuk azalduko ditugu, euskal finantza-lankidetzaren hurrengo urratsetarako balioko dutenak:

Lankidetzako euskal estrategiatik egituratzea eta hainbat helburutarako balioko duten tresnak diseinatzea. Euskadik ematen duen balio erantsia identifikatzea, eta 2030 Agendari dagokionez nola kokatzen den.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Finantzen Euskal Institutuaren arteko baterako gobernantza ezartzea, arlo publikotik kudeatzeko eta planifikatzeko beharrezko gaitasunak aktibatzea ahalbideratuko duena. Erakunde bakoitzaren eginkizunak mugatzea, lehendabizikoaren lidergo politikoarekin eta ekimenak proposatzeko eta proiektuen zorroa eraikitzeke inizatibarekin.

Beste herri administrazio batzuekin hitz egitea eta garapenerako lankidetzan jardutea; Estatuarekin eta beste autonomia erkidego batzuekin, foru aldundiekin, etab. Batez ere Estatu mailako lankidetzaren bultzatzea, Estatuko tresna erreformatzeko prozesuan (FONPRODE tresna, FEDES deituko dena), gaitasun exekutibo handiagoa emateko eta lurraldeko beste eragile batzuek gehiago hurbiltzeko.

Beste eragile batzuekin batera sortzeko ekimenak bultzatzea, hots, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeekin, Ekonomia Sozial eta Solidarioekin, Euskadiko ekosistema berritzaileekin, izaera kolektiboari, osagarritasunari eta gardentasunari eutsiz. Gorabidean dagoen talentuarekin konektatzea; talentu hori abian diren trantsizioez kezkatzen da, eta ondo ezagutzen du Hegoalde globala.

Eragileei akonpainatzea, eta haiengan kalitatezko parte-hartze baterako beharrezkoak diren gaitasunak sortzea edo indartzea. Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeekin kasuan, proposamen berriak diseinatzeko finantza-tresnak nola txerta ditzaketen aurreikustea, itzuli beharrik gabeko laguntzekin sortutakoaren bestelako logika batekin.

Finantza-lankidetzaren justizia ekonomikoaren aldeko mugimendu zabalago baten barruan antolatzea. Herritarrentzako heziketa-ekintzak indartzea eta aurrezteak herritarrak mobilizatzeko eta inplikatzeko eta herri administrazioek garapenerako politikekin modu

koherenteagoan jarduteko bide gisa duen osagai eraldatzailea ezagutzera ematea, finantza etikoen eta erosketa publiko arduratsuaren eginkizunarekin lotuta.

Gutxirekin hastea. Eskala oso garrantzitsua da ikaskuntzako eta etengabeko hobekuntzako prozesu bat gara dadin, ekimen oso zehatzak eginez.

Eranskina. Bertaratuen zerrenda

Iñigo Albizuri	Mondragon Corporation
Alicia Alemán	eLankidetza
Iciar Arechavala	
Javier Arnaez	Finantzen Euskal Institutua
Iban Askasibar	Ayuda en Acción
Carlos Askunze	REAS
Izaskun Astondoa	eLankidetza
Jon Mikel Benito	Bilboko Udala
Jorge Berezo	Oikocredit Euskadi
Alazne Camiña	eLankidetza
Miquel Carrillo	Nadir Perspectiva SCCL
Javier Cortés	
Noemi De la Fuente	eLankidetza
Arola Farre	Microfides
Natalia Fernández	Euskadiko GGKEen Koordinakundea
Josep Ferrer	Oxfam
Leire Folgoso	Finantzen Euskal Institutua
Greta Frankenfeld	Calala Fondo de Mujeres
Juan Garibi	FIARE Banca Etica
Iker Goicoechea	Finantzen Euskal Institutua
Gorka Goikoetxea	Fundación ANESVAD
Mireia Goikoetxea	Finantzen Euskal Institutua
Mariona González	SPAINNAB
Nerea González	Mondragron Team Academy
Jorge Gutierrez	HEGOA
Mikel Hidalgo	Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza
Jordi Ibáñez	Fundación Finanzas Éticas
Martín Iriberry	Alboan
Iñigo Lasa	Fundación ANESVAD
Irune Lekaroz	FIARE. Microfides
Nuria López de Guereñu	Fundación EKI
José María Luzarraga	Mondragon Team Academy
Alberto Mínguez	FIARE Banca Etica
Irene Molero	Euskadiko GGKEen Koordinakundea
Leire Morquecho	Alboan
Bernard Orilla	
Paul Ortega	eLankidetza
Carlos Oses	Mundukide
Jon Rekakoetxea	
Paul Rios	
Josean Rodriguez Ranz	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
Ana Isabel Rojo	eLankidetza
Laura Ruiz	Economistas Sin Fronteras / Finantzaz Haratago
Cristina San Salvador	Ship2b
Peru Sasía	FEBEA
Arantza Saenz de Ugarte	REAS Euskadi
Cecilia Smith	Fundación EKI
Itziar Ugarte	Alboan
Oscar Ugarte	SEED Capital
Carolina Unzeta	Save the Children
Josu Urrutia	Mundukide
Agustín Vitorica	GAWA Capital